

A T Z O K O  
**Ardoain**

*eta andoaindarrak*  
**eta**  
**ando**  
**ainda**  
**rrak**

**0 zbk.**



## GARAI BATEKO GERTAKARI ETA OHITUREN BERRI EKARRIKO DITUGU ORRI HAUETARA HILERO-HILERO

**G**anbaran ahaztuxeak utziak ditugun kontu eta istorioei hautsak kentzeko unea iritsi da ba. Hemendik aurrera, eta hilero-hilero aspaldi Andoainen izaten ziren ohiturak edota gertatu ziren jakingarri bitxien berri emango dugu aldizkari txiki batean. Honezkeru jabetu zarenez, 'Atzoko Andoain eta andoaindarrak' izena du agerkari horrek, izenburuak esaten duen bezala gure herriaren iragan gertukoa ekarri nahi baitugu gogora.

1996ko apirilean euskararen transmisioa bultzatzeko Eusko Jaurlaritzak antolatutako 'Ahoz aho, belaunez belaun' kanpaina egin zen Andoainen. Ekimen haren barruan, Andoaingo Udaleko Euskara Departamenduak hitzalditxo sail bat antolatu zuen herriko ikastetxetan. Andoaindar peto-peto taldetxo bat kontu-kontari ibili zen eskoletan beraien gazte garaiak nolakoak ziren azaldu nahian. Hitzalditxo haietan makina bat ohitura eta gertakari bitxiren berri eman zuten, eta haiek galtzea pena handia litzatekeela sinestuta, piztu zitzaion Udalari horiek biltzeko ideia. Manuel Larramendi Kultur Bazkunak ideia garatzeko enkargua jaso eta jarri gara, bada, lanean, hilabetez hilabete, gutxika-gutxika, kontu zahar horiek guztiak zabalduz joateko.

Eskuan duzun hau ale berezia duzu, gure asmen berri ematen duena. Hemendik aurrerakotan, lehen zenbakitik aurrera beraz, hasiko gara kontu zaharrei hautsak kentzen. Gai askotarikoak bilduko ditugu: izango dira ohituraren gainekoak, kontu bitxiak, han edo hemen orduko hartan gertatu zenari buruzkoak... Baina ez ditugu guztiak nahas-masean bilduko, gaika bazik. Izan ere, datorren urtariletik aurrerako hilabetekariak monografikoak izango dira, gai baten inguruan soilik arituko direnak. Aldizkaria hilero-hilero izango duzu eskuara, azken igandean.

Eta nondik lortuko dugun gertakari zaharrei buruzko informazioa? ba haiek bizitu zituzten gizon eta emakumeen ahotik. Orain bi urte Udalak antolatu zuen ekimen hartan parte hartu zutenak izango dira batzuk, eta memoriari eragin eta zer kontatua ugari duten herri-tarrak beste batzuk. Alboan dituzu zein izango diren gure protagonistak. Ah, baina konforme ez bazaude, ez geratu eskuak gurutzatu eta marmarrean. Zu zeorri ere gurekin solasean aritzeko prest izango zara akaso... ba gurekin harremanetan jartzea besterik ez duzu, bale?



**JOXE EIZMENDI**

1911-09-17

Etxebeste baserrian jaioa.

Zortzi urte

zituela sartu zen monagilo, eta hamarrekini hasi zen sakristau lanetan. Orduetik ez du egin behar hori utzi.

Ofizioz, "zapatero medidista" da, baina horrezaz gain, taxista eta beste hainbat lanbidetan aritu da.



zituela joan zen Etxeberrietara. Gerra ostean Bilizaba batekin bizibatean "asto bat" zuen han lan. Andoainera itzuli egin zuen lan ez



**MIGUEL AMAS**

1932-09-21


Kaleberrian jaioa.

49 urtez

Bonbasetan

lan egindakoa.

Gaur egun, mendira egiten du ospa ahal duen guztietan (sasoiko gazte asko atzean uzten ditu oraindik).



Ezkerretik Eskuintz Olazabal, Iñaki



**MIKAELA ANSA**

1926-12-19

Upategi baserrian jaioa.

Hamaika anai-arreba

izan zituen atzetik eta denak zaintzea egokitu zitzaion. Olamian aritu zen bost urtez lanean, ezkondu zen arte.



zituen Labordeta kame eta beste b gile. Ezkonduta ere, neskame izaten berak.

**MIREN ZARRAGA**



1932-05-09  
Zumea kalean,  
Le Petixeneko  
gainean jaioa;  
bi hilabete  
bizitzera

zuen lan.  
Gaur egun, josten, irakurtzen eta  
paseatzen ematen du eguna.

**M. ESTHER ARRIETA**

1929-07-21  
Kaleberrian  
jaioa.  
37 urtez  
Laborden egin



**BIXENTE OLANO**

1919-07-09  
Algodonera  
Guipuzcoana-n  
jaioa.  
Zazpi urte

egin zituen gerran soldadu.  
Algodoneran langile, panadero...  
izan da.  
Andoaingo "ilustratua" dela diote  
askok.



**JOXE MARI AMUTXASTEGI**

1923-11-30  
Zumea kalean  
jaioa.  
40 urtez aritu  
zen Laborden  
lanean.

Gaur egun jubilatuta dago, berak  
dionez "andrea menpe bizitzen".

ita Laborden  
kondu arte.




era: Joxe Eizmendi, Miren Zarraga, M<sup>a</sup> Esther Arrieta, Bixente Olano, Joxe M<sup>a</sup> Amutxategi, Joxe M<sup>a</sup>  
Arregi, Roke Ansa, Loren Navarro, Imanol Egibar, Joxepa Ormaetxea, Mikaela Ansa eta Miguel Amas



**JOXE MARI OLAZABAL**

1928-09-24  
Eskola kalean,  
Alondegi  
goian, jaioa.  
Urte askoz

Bonbasetako ofizinan aritua  
("chico elegante" zen-eta).  
Gaur egun, Caritasen ari da.



**IÑAKI ARREGI**

1927-01-28  
Pilar Garineko  
gainean jaioa.  
Besteak beste,  
Laborden eta

Orberoko langile izandakoa.  
Urte askotan aritu da gaiso tal-  
deekin lanean, eta gaur egun ere,  
horretan jarraitzen du.

**JOXEPA ORMAETXEA**



1923-04-25  
Txitsarrain  
baserrian  
jaioa.  
Bost urte egin  
arren etxean nes-  
ost Olamian lan-

Laborden, "unibertsitatean", aritu  
zen aurrena lanean. Donostiako  
arkitekto batekin gero, eta topo-  
grafo azkenik.

**IMANOL EGIBAR**

1929-01-01  
Gaur egun bizi  
den etxe bere-  
an jaio zen,  
Zipitria enean.



**LOREN NAVARRO**

1924-11-05  
Zumea kalean  
jaio eta gero  
Kaleberrira  
bizitzera eto-

rritakoa.  
Etxean ezezik, familiako dendan,  
Juanito Barberonean, lan egin  
izan du.



**ROKE ANSA**

1925-08-16  
Upategi base-  
abate, base  
rrian jaioa  
Magnesitasen  
lan egindakoa

Gaur egun Elkarrin, baratzen...  
aritzen da lanean.

txeko-andre eta  
arraitu duela dio

# DENETARIK, ERA ASKOTARIKOAK

Zertaz hitz egin ez zaie falta aurreko orrietan bildu ditugun gizon-emakume guzti horiei; ez horixe. Soka luzea dute, are gehiago garai bateko kontuei buruz hasten direnean. Ba, hori bera egingo dute datorren hilabetetik aurrera: elkarrekin bildu eta kontu-kontari aritu.

Gai ugari ekarriko dugu orrialde hauetara. Batzuren batzuk hemen behean bildu ditugunak izango dira, baina badakigu lanean hasi orduko sortuko direla beste hamai-ka gai. Izango da denetarik.

## AUZOAK



Kaletxiki, Bastero, Zumea, Etxeberrieta... gaur egun baino berezituagoak zeuden, garai batean, Andoaingo auzoak. Harreman ona zuten auzo diferenteetakoan artean, baina aurkakotasun sano bat ere bai. Hori ere kontatuko dugu.

## ESKOLA



Gai honexek, eskolak, zabalduko du gure saila. Urtarrileko azken igandean jasoko duzun alean gerra aurreko eta gerra osteko ikastetxeak nolakoak ziren azalduko dugu. Juanitarena, Tolosanekoa, La Salleko fraileak.... Eskolan zer ikasten zen eta nola ikasten zen ekarriko dugu gogora.

## FESTAK



Gaur egun bezala, Andoainen ere bazen makina bat festa bazterretan. Santakruzak berezi-bereziak izaten ziren, Etxeberrietako Saninazioak zer esanik ez... Egitarau xumexume bat nahikoa izaten zen izugarri giro ona pizteko.

## IGANDE ARRATSALDEAK



Igandea izaten zen jai egun bakarra. Mezetara buelta egin, bandaren ekitaldia entzun, bazkaldu... eta dantzarako garaia arratsaldean. Igande arratsalde haiek nolakoak ziren, nesketan edo mutiletan nola aritzen ziren.... horiek ere kontatuko dizkigute.

## ELIZA



Andoainen prozesio eta segizioak ugari izaten ziren; komunio txikia egiten zen haundiaren aurretik; elizara kasik eskolara bezainbeste joaten ziren bixitan... Erljiioak erabat baldintzatutako bizitza zen garai bateko.

## JOLASAK

Ez Barbierik, ez motordun kotxerik.... jostailurik apenas zituzten garai batean. Ez zuten, baina, gaur egungo haurrek baino gutxiago jolasten, ez alajaina! Kanikak, kirrinkiloa, sokasaltua, kurkuluxak kinkiflak... denbora-pasa atsegin eta diberti-  
garriak zituzten guztiak.

## LANBIDE ZAHARRAK

Aspaldi samarrean desagertu edota gaur egunekoan aldean izugarri aldatu diren lanbideen berri ere emango dugu. Tranbiako interbentorea, zabor biltzailea, arrain saltzailea, aguazila... horiez gain baziren beste hamaika.



Andoaino Udalak



Eusko Jaurlaritzak



Manuel Larramendi Kultur Bazkuna



Andoaino Udaleko Euskara Lansaila

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Sailordetzaren diru laguntzaz, Andoaino Udalak ordaindutako argitalpena

**Argitaratzaileak:** Manuel Larramendi Kultur Bazkuna Andoaino Udaleko Euskara Departamenduaren ekimen eta dirulaguntzaz. **Zuzendaritza eta erredakzioa:** Jone Larrañaga. **Maketazioa:** Maddi Trutxuelo. **Argazkiak:** Artxibo pertsonalak, Udak artxiboa eta Manu Mujika. **Inprimaketa:** Sortu grafikak (Zizurkil). **ISSN:** Tramitean. **Lege gordailua:** SS-1594/98. **Tirada:** 3.000 ale.